

Produktuaren izena:
ZORRO DELEGATUAK

Erakunde juridikoaren identifikatzailea:
A95653077

Ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak bultzatzen dituzten finantza-produktuei buruzko informazioa



AURKIBIDEA

1. LABURPENA
2. INBERTSIO JASANGARRIKO HELBURURIK GABE
3. FINANTZA-PRODUKTUAREN INGURUMEN- ETA GIZARTE-EZAUGARRIAK
4. INBERTSIO-ESTRATEGIA
5. INBERTSIOEN PROPORZIOA
6. INGURUMEN- EDO GIZARTE-EZAUGARRIEN JARRAIPENA
7. METODOAK
8. DATUEN ITURRIAK ETA TRATAMENDUA
9. METODOEN ETA DATUEN MUGAK
10. BEHARREZKO EGINBIDEA
11. INPLIKAZIO-POLITIKAK

1. LABURPENA

Finantza-produktu honek ingurumen- eta gizarte-ezaugarriak sustatzen ditu, baina haren helburua ez da inbertsio jasangarri bat egitea.

Zorro delegatuen xedea da inbertsioak kudeatzea, eta haren erabaki- eta kontrol-mekanismoen bidez ziurtatzea inbertsioaren jomuga diren fondoek printzipio hauek bete eta sustatuko dituztela beren jardun-eremuan:

- a) Giza eskubideak eta lan-arlokoak errespetatzea:
- b) Ingurumena eta biodibertsitatea zaintzea:
- c) Gobernantza Onaren politikak eta ustelkeriaren aurkako borroka
- d) Jardunbide egokiak zerga-arloan

Inbertitu beharreko fondoak zehazteko, kontuan hartuko da zorro delegatuen xedea. Zorroren osaeraren parte diren fondoak Kutxabank Gestionen fondoak direla kontuan hartuta, fondo horiek irizpide hauek erabiltzen dituzte dagozkien adierazleekin, aktiboen tipologia bakoitzari egokituta:

1. Baztertzailak: fondoek ez dute inbertituko arma eztabaidagarrien (pertsonei kontrako minak, barreiatze-bonbak, armamentu kimikoa edo biologikoa...) ekoizpenari lotutako aktiboetan, edo ingurumen-kalte larri-larriak, konponbide-neurririk hartu gabe, eragiten dituzten armen ekoizpenari loturikoetan. Gainera, ez da inbertituko erakunde jaulkitzaileetan, baldin eta lotura badute ustelkeria larriko jardunbideekin, adingabeen esplotazioarekin edo gerrek edota gatazkek eragindako norbanakoaren eskubideen urraketarekin; ezta egoitza paradisu fiskal batean duten jaulkitzaileekin ere.
2. Baloraziokoak: zorro delegatuen parte diren fondo guztiak egiten dute:
 - 2.1. Jaulkitzaileen ebaluazioa IGG arloan. Zorro delegatuek inbertitzen duten fondoek inbertsioak hautatzeko *best in class* metodologia erabiltzen dute, kontuan izanik adierazle batzuk. Horretarako, kudeatzaileak IGG rating bat esleitzen die inbertitzen duen edo inberti dezakeen jaulkitzaileei.
 - 2.2. Klima-aldaketari buruzko Pariseko Akordioaren helburuekin lerrotzea eta
 - 2.3. IGG eztabaidak kudeatzea (Sustainalytics-en albisteen eta eztabaiden bidez nagusiki).
3. Gaietan oinarrituak, aurreko irizpide baloratiboak sendotzeko modu gisa: bonu berdeak, sozialak, inpaktu-inbertsioak, etab.
4. Errenta aldakorreko kasu zehatzean, fondo gehienek jabetza aktibo bat gauzatzen dute beren eskubide politikoak erabilia (boto-politika), baita beren elkarrizketa-politikaren bitartez ere.

Zorro delegatuen fondo gehienek aipatutako xedea betetzen dute; salbuespena da honako hauetan inbertitzen duen fondoaren zatia: tresna deribatuen, dibertsifikaziorako inbertsioak edo daturik gabekoak, baita likidezia kudeatzeko inbertsioak ere.

Gainera, zorro delegatuek inbertsio jasangarrien % 35eko gutxieneko ehunekoak dute. Oro har, inbertsio jasangarrietan, ingurumen- edo gizarte-helburuei kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa lotuta dago jasangarritasun-faktoreei buruzko inbertsio-erabakien kontrako gorabehera nagusien dibulgazioarekin (zorroak osatzen dituzten fondo gehienek aintzat hartzen dituzten faktoreak).

Zorro delegatuen parte diren fondoak kudeatzen dituen Kutxabank Gestioneak, bere aldetik, sustatutako jasangarritasun-ezaugarrien lorpena neurtzeko mekanismo eta metodo hauek erabiltzen ditu:

- Ingurumen- edo gizarte-ezaugarrien kontrol-mekanismoen oinarrian daude, batetik, inbertsio-unibertsoaren jarraipena (esklusioak), eta bestetik, zorro delegatuen parte diren fondoek zehaztuta dituzten barne-mugak.
- Finantza-produktuak sustatutako ezaugarriak nola betetzen diren neurtzeko metodoak adierazitako ezaugarri bakoitzari lotutako jasangarritasun-adierazleen kuantifikazioan oinarritzen dira, eta, nagusiki, honako hauek dira: erreferentzia-indize batekin egindako konparazioa, kontrako gorabehera nagusien jarraipena eta hirugarrenek finantza-produktuaren IIG puntuazioaren jarraipena egitea.
- Finantza-produktuak sustatzen dituen ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak lortzeko erabiltzen diren datu-iturri nagusiak honako hauek dira: Sustainalytics, MorningStar, Bloomberg eta PACTA. Aipatutako metodoen eta datu-iturrien muga nagusia datuen jatorrian dago (konpainiek eurek argitaratutako datu nahikorik ez dago) baita jasangarritasunari buruzko datuak historikoak eta urtero eguneratzeko modukoak izatea ere; beraz, finantza-arloko beste datu batzuek baino zurruntasun handiagoa dute.
- Finantza-produktuaren azpiko aktiboek lotutako beharrezko eginbideen eremu zehatzean, sozietateak kontuan hartzen ditu jasangarritasunaren arriskuak eta aukerak, aktiboen gainerako finantza-arrisku eta -aldagaiekin batera, eta IIG politiken eta prozeduren zerrenda batean gauzatzen ditu (bazterketak, integrazioa, eztabaiden kudeaketa, inplikazioa, etab.). Era berean, sozietatearen estamentu guztiak daude inplikaturik, eta, beraz, baita maila goreneko erabaki-organoak ere; horrela, beharrezko eginbidea aplikatu eta gainbegiratu nahi da, eta enpresa-estrategian integratu.
- Inplikazio-politikari dagokionez, eta, zehazki, eskubide politikoen erabilerari dagokionez, alderdi ekonomikoak eta GIA irizpideak hartzen dira kontuan, finantza-produktuak adierazitako ezaugarriak sustatzeko. Horrez gain, elkarrizketa-estrategia bat dago, inbertitzen den konpainiek GIA arloan duten inplikazio- eta konpromiso-maila neurtzeko.

2. INBERTSIO JASANGARRIKO HELBURURIK GABE

Finantza-produktu honek ingurumen- eta gizarte-ezaugarriak sustatzen ditu, baina haren helburua ez da inbertsio jasangarri bat egitea.

Oro har, inbertsio jasagarrietan, ingurumen- edo gizarte-helburuei kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa lotuta dago jasagarritasun-faktoreei buruzko inbertsio-erabakien kontrako gorabehera nagusien dibulgazioarekin, eta zorroaren parte diren fondo gehienek aintzat hartzen dituzten faktore horiek.

Zorro delegatuak osatzen dituzten fondoak kudeatzen dituen Kutxabank Gestionen fondoek inbertsioen kontrako jasagarritasun-inpaktuak aztertzen eta horien jarraipena egiten dute, kontrako gorabeheren adierazleen jarraipenaren bidez. Ingurumen- edo gizarte-inpaktuak handitzeagatik edo konpromisoak edo politikak ez betetzeagatik kontrako gorabehera esanguratsu bat identifikatzen bada, horren arrazoiak ebaluatzen dira eta, beharrezkoa izanez gero, mitigazio- eta zuzenketa-ekintzak gauzatu. Neurri horiek izan daitezke inbertsio gehigarririk ez egitea, desinbertsioa, esposizioa murriztea edo behaketan jartzea. Neurriak osa daitezke, hala badagokio, jabetza aktiboa gauzatu, inplikazio-ekintzen bidez; hala nola elkarrizketa eta dagokion boto-eskubidea erabiltzea inbertsioaren jomuga den konpainiako partaidetzaren arabera.

Kutxabank Gestioneak, zorroak osatzen dituzten fondoek kudeatzaileak, jaulkitzaileak aztertzean, kontuan hartzen ditu Enpresa Multinazionalerako ELGaren Gidalerroak (governuek enpresa multinazionaleri eginiko gomendioak, enpresa-jokabide arduratsu baterako printzipio eta arauak biltzen dituztenak) eta enpresei eta giza eskubideei buruzko Nazio Batuen Printzipio Gidariak, helburutzat dutenak esparru orokor bat eskaintzea, enpresa-jardueran giza eskubideen aurkako inpaktuen arriskuari aurre egiteko.

3. FINANTZA-PRODUKTUAREN INGURUMEN- EDO GIZARTE-EZAUGARRIAK

Zorro delegatuen xedea da inbertsioak kudeatzea, eta haren erabaki- eta kontrol-mekanismoen bidez ziurtatzea inbertsioaren jomuga diren fondoek printzipio hauek bete eta sustatuko dituztela beren jardun-eremuan:

- a) **Giza eta Lan Eskubideak errespetatzea:** Oinarrizko giza eskubide unibertsalak babestea eta errespetatzea, eta ez parte hartzea, ez zuzenean ezta zeharka ere, eskubide horien urraketan. Elkartzeko askatasuna errespetatzea, negoziazio kolektiborako eskubidea benetan aitortzea, behartutako lan-mota oro ezabatzen eta haurren lana desagerrarazten laguntzea, eta enpleguan diskriminazio-praktikak indargabetzen laguntzea. Genero-berdintasuna eta emakumeen nahiz nesken ahalduntzea bilatzea.
- b) **Ingurumena eta biodibertsitatea zaintzea:** Ingurumena babestuko duen prebentzioa bultzatzea, ingurumen-erantzukizuna indartzen duten ekimenak sustatzea, eta ingurumena errespetatzen duten teknologien garapena eta hedapena bultzatzea. Isuriak murrizteko ahalegina Pariseko Akordioaren helburuarekin bat datorren ebaluatzea: batez besteko tenperatura globalaren igoera mantentzea 2 °C-tik behera industriaurreko mailen gainetik.

Babesa ematea *Task Force on Climate-Related Financial Disclosures* (TCFD) erakundearen gomendioei: lantalde horren zeregin da enpresek beren inbertitzaileei klima-aldaketaren arriskuei eta horiek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman diezaieten sustatzea, eta horrek laguntzen du areagotzen merkatuaren gardentasuna eta klimarekin lotutako arriskuen gaineko kontzientzia

- c) **Gobernantza Onaren politikak eta ustelkeriaren aurkako borroka:** Akziodunen eskubideak, gutxiengoarenak barne, errespetatuko dituen erakunde korporatiboa sustatzea. Enpresa-estrategia eta -politikak gauzatzeko moduan egongo diren kudeaketa-organoak sustatzea, aintzat hartuko dituztenak kontrol eta oreka egokiak, ikuskapen independentea, alderdi interesdun garrantzitsuen inplikazioa, epe luzerako helburuekin lerrotatutako ordainsari-sistemak, eta estatuko lege eta kodeak betetzea. Ustelkeria-mota oro errefusatzea, estortsioa eta eroskeria barne, eta jarduera horietan ez parte hartzea, ez zuzenean ez zeharka.
- d) **Jardunbide egokiak zerga-arloan:** Enpresen barruan zerga-politika arduratsuak ezar daitezen sustatzea.

Gainera, NBEren Inbertsio Arduratsuko Printzipioen (IAP) borondatezko sinatzailea den neurrian, Kutxabank Gestioneak, zorro delegatuak osatzen dituzten fondoek kudeatzaileak, bere politika ezartzeko esparru gisa, beregain hartu du datozen epigrafeetan pixkanaka aurreratzeko erantzukizuna, inbertsio-jarduera konbentzionaletan ingurumenaren, gizartearen eta gobernantza onaren (IGG) parametroak integratzeko:

1. IGG irizpideak txertatzea inbertsioen prozesuan.



2. IGG faktoreak sartzera jabe modura definitutako jardunbide eta politiketan.
3. Gardentasuna erraztea IGG faktoreetan eginiko inbertsioetan.
4. Bultzada ematea printzipio hauek finantza-sisteman garatzeari.
5. Batera lan egitea eta printzipio hauen inplementazio eraginkorra bultzatzea.
6. Informazioa ematea aldizka printzipio hauen inplementazioan eginiko urratsei buruz.

4. INBERTSIO-ESTRATEGIA

Zorro delegatuen inbertsio-estrategiak prozesu zorrotz bati jarraitzen dio, uztartuz, alde batetik, inbertitzen duen fondoaren irizpide ekonomiko-finantzarioen eta arrisku-irizpideen analisia eta, bestetik, babestu nahi diren ingurumen- eta gizarte-ezaugarriak.

Zer fondotan inbertitu erabakitzean, kontuan hartuko da zorro delegatuaren xedea, aintzat harturik inbertsio guztien erabakitze-prozesuan erabiltzen diren irizpideak, nahiz eta fondoaren tipologia bakoitzari egokituak:

1. **Baztertzailak:** zorro delegatua osatuko duten fondoek ez dute inbertituko arma eztabaidagarrien (pertsonekin kontrako minak, barreiatze-bonbak, armamentu kimikoa edo biologikoa...) ekoizpenari lotutako aktiboetan, edo ingurumen-kalte larri-larriak, konponbide-neurririk hartu gabe, eragiten dituzten armen ekoizpenari loturikoetan. Gainera, ez da inbertituko erakunde jaulkitzaileetan, baldin eta lotura badute ustelkeria larriko jardunbideekin, adingabeen esplotazioarekin edo gerrek edota gatazkek eragindako norbanakoaren eskubideen urraketarekin; ezta egoitza paradisu fiskal batean duten jaulkitzaileekin ere.
2. **Baloraziokoak:** zorro delegatuen parte diren fondo guztiek egiten dute:
 - 2.1. Jaulkitzaileen ebaluazioa IGG arloan. Zorroek inbertitzen dituen fondoek inbertsioak hautatzeko *best in class* metodologia erabiltzen dute, kontuan izanik adierazle batzuk. Horretarako, kudeatzaileak IGG rating bat esleitzen die inbertitzen duen edo inberti dezakeen jaulkitzaileei. Prozesu horretan, kudeatzaileak aztertzen du jaulkitzaileen jardura, honako adierazle hauek erabilita, eta pisu bat edo beste ematen die, kontuan izanik zer sektoretakoak diren:
 - 2.2. Klima-aldaketari buruzko Pariseko Akordioaren helburuekin lerrotzea eta
 - 2.3. IGG eztabaidak kudeatzea (Sustainalytics-en albisteen eta eztabaiden bidez nagusiki).
3. **Gaietan oinarrituak,** aurreko irizpide baloratiboak sendotzeko modu gisa: bonu berdeak, sozialak, inpaktu-inbertsioak, etab.
4. **Errenta aldakorreko fondoaren kasu zehatzean,** jabetza aktibo bat gauzatzen dute beren eskubide politikoak erabilita (boto-politika), baita beren elkarrizketa-politikaren bitartez ere. Emaitzek jaulkitzaileen ebaluazioa IGG arloan berrelikatzen dute.

Bestalde, Kutxabank Gestioneak, zorro delegatuen parte diren fondoak kudeatzen dituen sozietate kudeatzaileak, jaulkitzaileak aztertzeko prozedurak ditu, eta horien bidez inbertitzen duen konpainien gobernantza korporatiboa ebaluatzen du. Azterketa horren emaitzaren arabera, sozietateak erabaki dezake ez inbertitzea (kasuaren arabera, jaulkitzaile hori baztertuen zerrandan sartuta), desinbertitzea, esposizioa murriztea edo behaketan jartzea. Era berean, neurri horiek osa daitezke, hala badagokio, jabetza aktiboa gauzatu,




inplikazio-ekintzen bidez; hala nola elkarrizketa eta dagokion boto-eskubidea erabiltzea, inbertsioaren jomuga den konpainiako partaidetzaren arabera.

5. INBERTSIOEN PROPORZIOA

Oro har, IGG ezaugarriak sustatzeko prozedurak erabiltzen dira zorro delegatuen inbertsio guztietan. Salbuespena da honako hauetan inbertitzen duen fondoentzako zatia: tresna deribatua, dibertsifikaziorako inbertsioak edo daturik gabekoak, baita likidezia kudeatzeko inbertsioak ere. Beraz, zorroaren inbertsio gehienek bete egiten dute aipatutako xedea.

Gainera, zorro delegatuek inbertsio jasagarrien % 35eko gutxieneko ehunekoa dute.

10



Zorro delegatuak osatzen dituzten fondoentzako inbertsio jasagarriek lagun diezaiokete 2020/852 (EB) Erregelamenduan eta hura garatzeko gainerako xedapenetan jasotako EBren ingurumen-taxonomiaren arabera (“EBren taxonomia”) jasagarritzat hartzen den jarduera ekonomiko bati edo batzuei. Bereziki, inbertsio horien helburua klima-aldaketa gutxitzea edo aldaketa horretara egokitzea izan daiteke. Zorro delegatu horien inbertsioen eta EBren taxonomiaren arteko lerrokatzearen gutxieneko ehunekoa % 0 da.

Zorro delegatuen inbertsio jasagarriek lagun diezaiokete 2020/852 (EB) Erregelamenduan eta hura garatzeko gainerako xedapenetan jasotako EBren ingurumen-taxonomiaren arabera (“EBren taxonomia”) trantsizio-jardueratzat edo bideratzailetzat hartzen den jarduera ekonomiko bati edo batzuei. Zorro delegatuek trantsizio-jardueretan eta jarduera bideratzailetan egiten dituzten inbertsioen gutxieneko ehunekoa % 0 da.

EBren taxonomiarekin bat ez datozen ingurumen-helburuak dituzten zorro delegatuen inbertsio jasagarrien gutxieneko proportzioa ondarearen % 10 da.

Gizarte-ikuspegitik jasagarriak diren inbertsioen gutxieneko proportzioa ondarearen % 10 da.

6. INGURUMEN- EDO GIZARTE-EZAUGARRIEN JARRAIPENA

Zorro delegatuentzat definitutako estrategiaren arabera, kontuan hartuko da zorroaren xede hau inbertitu beharreko fondoak zehazteko. Zorroen osaeraren parte diren fondoak Kutxabank Gestionen fondoak direla kontuan hartuta, fondo horiek irizpide hauek erabiltzen dituzte dagozkien adierazleekin, aktiboen tipologia bakoitzari egokituta:

1. **Baztertzailak:** fondoek ez dute inbertituko arma eztabaidagarrien (pertsonekin kontrako minak, barreiatze-bonbak, armamentu kimikoa edo biologikoa...) ekoizpenari lotutako aktiboetan, edo ingurumen-kalte larri-larriak, konponbide-neurririk hartu gabe, eragiten dituzten armen ekoizpenari loturikoetan. Gainera, ez da inbertituko erakunde jaulkitzaileetan, baldin eta lotura badute ustelkeria larriko jardunbideekin, adingabeen esplotazioarekin edo gerrek edota gatazkek eragindako norbanakoaren eskubideen urraketarekin; ezta egoitza paradisu fiskal batean duten jaulkitzaileekin ere.

2. Baloraziokoak:

2.1. Jaulkitzaileen ebaluazioa IGG arloan. Fondoek inbertsioak hautatzeko *best in class* metodologia erabiltzen dute, adierazle batzuk oinarri hartuta. Horretarako, kudeatzaileak IGG rating bat esleitzen die inbertitzen duen edo inberti dezakeen jaulkitzaileei. Prozesu horretan, kudeatzaileak aztertzen du jaulkitzaileen jarduera, honako adierazle hauek erabilia, eta pisu bat edo beste ematen die, kontuan izanik zer eremu geografikotakoak diren:

2.1.1. Errenta finko pribatu eta errenta aldakorreko inbertsioetan:

- Ingurumen-alorrean: karbono-intentsitatea [berotegi-efektuko gasen (BEG) guztizko intentsitatea, eskuragarri badago, edo karbono dioxidoaren (CO₂) guztizko intentsitatea, berotegi-efektuko gasen tona metriko gisa kalkulatu, eskuragarri badago, edota CO₂ isuria, enpresaren erreferentziako moneta eginiko salmenten milioi bat diru-sarrera bakoitzeko], hondakinen intentsitatea (salmentek sortutako hondakinak, hondakin arriskutsu zein ez-arriskutsuen tona metriko gisa kalkulatu, enpresaren erreferentziako moneta eginiko salmenten milioi bat diru-sarrera bakoitzeko) eta ur-intentsitatea (ur-erabilera guztizkoa, eskuragarri badago, edo ur-ateratzearen intentsitate guztizkoa, metro kubikoetan, enpresaren erreferentziako moneta eginiko salmenten milioi bat diru-sarrera bakoitzeko).
- Gizarte-arloan: lan-gorabeherak, enplegatuen txandakatze-ratioa eta emakumeen ehunekoa Administrazio Kontseiluan.
- Gobernantza onaren alorrean: kontseilari independenteen ehunekoa Administrazio Kontseiluan eta Auditoria Batzordean.
- Sustainability-en IGG ratinga.

2.1.2. Jaulkitzaile publikoen kasuan, neurketa oinarritzen da Sustainability Country Risk Rating(1)-ean, birkalkulatu egiten dena are gehiago haztatuz esku hartzen duten IGG faktoreak:

- Ingurumen-arloan: kapital naturala eta ekoitzia.
 - Energia eta klima-aldaketa: Beren karbono-intentsitatea murrizten eta karbono gutxiagoko munduranzko trantsiziorako prestatzen ari

diren herrialdeek gaitasun handiagoa izango dute epe luzera aberastasuna sortzeko.

- Baliabideen erabilera: Baliabideak modu jasangarrian erabiltzen dituzten herrialdeek aurreikuspen hobek dituzte epe luzera aberastasuna sortzeko.
- Gobernantza: Gobernantza eraginkorra duten herrialdeek eta zuzenbide-estatuak aukera gehiago dituzte kapital naturalaren eta ekoiztaren erabilera jasangarria eta zaintza bermatzeko.
- Gizarte-arloan: Giza kapitala:
 - Oinarrizko beharrak: Giza kapitalaren garapena biztanleriaren oinarrizko premiei emandako erantzun-mailaren mende dago.
 - Osasuna eta ongizatea: Era berean, giza kapitala sor daiteke osasuntsu dauden biztanlerietan.
 - Ekitatea eta aukera: Pertsonak modu bidezkoan tratatzen dituzten ekonomiek, aukera berdinak ematen dituztenek (hezkuntza-aukerak barne), modu eraginkorragoan sortuko dute giza kapitala etorkizunean.
- Gobernantza onaren arloa: Kapital instituzionala:
 - Erakundeen sendotasuna: Erakundeen kalitateak, erregulazioek eta zuzenbide-estatuak eragin handia dute herrialde batek eskura dituen baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko eta epe luzera aberastasuna sortzeko gaitasunean.
 - Eskubideak eta askatasunak: Zenbat eta handiagoa izan herritarren eskubide eta askatasunen babesa, orduan eta gehiago lagunduko dute aberastasuna sortzen.
 - Bakea eta egonkortasuna: Epe luzera aberastasuna sortzeko, bakea eta egonkortasun soziala/politikoak behar dira.

2.1.3. IKEen kasuan, fondoak bere inbertsioak bideratzen ditu Morningstar barometroan IGG puntuazio onena duten inbertsioetara.

Adierazle hauek alda daitezke esparru bakoitzean duten garrantziaren eta datuen estaldura erabilgarriaren arabera, bakoitzari pisu bat emanez, kontuan izanik jaulkitzaile bakoitzaren sektorearen faktore esanguratsuenak.

- 2.2. Klima-aldaketari buruzko Pariseko Akordioaren helburuekin lerrokatzea eta
- 2.3. IGG eztabaidak kudeatzea (Sustainalytics-en albistearen eta eztabaidaren bidez nagusiki).

Zorro delegatuen parte diren fondoek jarraian aipatutako kontrol-mekanismoak erabiltzen dituzte ingurumen- edo gizarte-eragilearen jarraipena egiteko. Mekanismo horiek elementu lotesle hauetan oinarritzen dira:

- Baztertzak, jada aipatu direnak eta zorroaren inbertsio-unibertsoan eragiten dutenak.
- Barne-mugak, inbertsio-muga handiagoa edo txikiagoa ematen dietenak jaulkitzaileei, eta baztertu ere egin ditzakete, IGG adierazleetan dituzten emaitzen

arabera, baita Garapen Jasangarrirako Helburuetan (GJH) duten inpaktuaren arabera ere.

Jaulkitzailearen kreditu-kalifikazioak aldez aurretik definitutako inbertsio-mugak modulatuak dira; hau da, +/- % 20 gehigarri batean doitzen dira, aintzat harturik inbertsio-estrategiaren atalean azaldutako prozesuaren arabera eta GJHetan izandako inpaktuaren arabera esleitutako IGG kalifikazioa, eta, bonu berde eta sozialen kasuan, haien inbertsioa sustatzen da % 20 handituz jaulkitzaileari esleitutako muga.

IKEetan inbertitzeko, barne-mugek exijitzen dute IKEetan inbertitzen den zatiak edukitzea 3 Morningstar globo edo hortik gorako batez besteko kalifikazioa, edo inbertsio jasangarriaren batez bestekoa % 30ekoa edo hortik gorakoa izatea.

7. INGURUMEN- EDO GIZARTE-EZAUGARRIEN METODOAK

Zorro delegatuak osatzen dituzten fondoak Kutxabank Gestionenak direla kontuan hartuta, fondo horietan jarraian aipatutako metodoak erabiltzen dira, sustatutako ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak zenbateraino betetzen diren neurtzeko. Oro har, adierazitako ezaugarri bakoitzari lotutako jasangarritasun-adierazleen kuantifikazioaren azterketan oinarritzen dira, eta honako hauek dira nagusiki:

- Alderaketa erreferentzia-indize batekin:
 - Errenta aldakorreko funtsen kasuan, erabilitako metodologia kalibratzeko eta sustatu nahi diren ezaugarriak lortzen direla ziurtatzeko, egiaztatu egingo da funtsaren IGG puntuazio haztatuak gainditu egiten duela honako hau: fondoaren jasangarritasun-eranskinean adierazitako jasangarritasun-adierazleak informazio-liburuxkako erreferentzia-indizearen osagaiei aplikatzearen emaitza.
 - Errenta finkoko funtsen kasuan, erabilitako metodologia kalibratzeko eta sustatu nahi diren ezaugarriak lortzen direla ziurtatzeko, IGG puntuazio haztatuak gainditu egiten duela honako hau: jasangarritasun-eranskinean adierazitako adierazleak Bloomberg-en DMTR (“Developed Markets Large Mid” munduko kapitalizazioaren % 85 ordezkatzan duten 1.780 kide inguru dituen) indizearen osagaiei edo jaulkitzaileen indize generiko baliokide esaguratsu baten osagaiei aplikatzearen emaitza.
- Kontrako gorabehera nagusien jarraipena: Kutxabank Gestioneak, zorro delegatuak osatzen dituzten fondoak kudeatzaileak, aintzat hartzen ditu kontrako gorabehera nagusiak (KGN), zeinak inbertitzen duen enpresek ingurumenean eta/edo gizartean eragiten dituzten inpaktu negatiboak baitira. Horretarako, kontuan hartzen ditu EBren arabera garrantzitsuenak diren adierazleak, bai ingurumen-arloan (gas-isuriak, biodibertsitatea, ura, hondakinak...) bai gizarte-arloan (giza eskubideak, armak, generoa...). Erabilitako metriken inpaktua inbertsio-erabaketan txertatzen da, bazterketa- edo balorazio-irizpide gisa, edo tematiketan bitartez eta jabetza aktiboa gauzatzean, halako moldez, non kontrola daitekeen inbertsioen bizitzan zehar gizartean edo ingurumenean izango den inpaktu negatiboa. Ingurumen, gizarte eta gobernantza onaren askotariko adierazleak gainean egindako analisi horren hedadurak ahalbidetzen du, halaber, finantza-produktuak sustatutako ingurumen- edo gizarte-ezaugarrien betetze-mailaren irismena monitorizatzea.
- Kanpotik finantza-produktuaren IGG puntuazioaren jarraipena egitea: zehazki Morningstar-ek eslelitutako IGG puntuazioa ebaluatzen da. Horrela, finantza-produktuak sustatzen dituen ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak behar bezala betetzen badira, ondoriozta daiteke MorningStar-ek puntuazio ona esleituko diola fondoari.

8. DATUEN ITURRIAK ETA TRATAMENDUA

Kutxabank Gestioneak, zorroak osatzen dituzten fondoak kudeatzen dituen sozietateak, finantza-produktuak sustatutako ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak lortzeko erabiltzen dituen datu-iturriak honako hauek dira:

1. Sustainalytics (Morningstar-en enpresa): analisi-hornitzaile bat da, jaulkitzaile pribatu zein publikoetan jasagarritasun-arriskuak neurtzen espezializatuta dagoena, eta jaulkitzaile horiek ingurumenean, gizartean eta gobernantza korporatiboan (IGG) egindako jarduna aztertzen du.
2. MorningStar: Estatu Batuetako enpresa bat da, finantza-ikerketari eta inbertsioen kudeaketari lotutako askotariko zerbitzuak eskaintzen dituena; tartean, inbertsio-fondoek kalifikazioa jasagarritasun-gaietan.
3. Bloomberg: Estatu Batuetako konpainia bat da, finantza-aholkularitza eta burtsako software, data eta media eskaintzen dituena eta finantzako softwarea ematen duena, hala nola komertzio kapitaleko analisia eta plataformak, datuen zerbitzuak eta finantza-enpresetarako albisteak; tartean, inbertitzen den jaulkitzaileen jasagarritasunari buruzko datu gordinak eskaintzen ditu.
4. PACTA (Paris Agreement Climate Transition Assessment): 2. Investing Initiative-ko tresna (2DII: irabazi asmorik gabeko adituen talde independentea, finantza jasagarriari buruzko munduko ikerketa-proiektu handienetako batzuk koordinatzen dituena). Tresna honek zorro baten ekintzen eta bonuen oinarrian dauden aktiboen errokatze-maila aztertzen du hainbat egoeratan, Parisko Akordioekiko.

Datuen kalitatea bermatzeko hartutako neurriei dagokienez, sozietateak alde zuzenetik aztertu du hautatutako datu-iturrien kalitatea, eta, horrez gain, datuak etengabe kontrastatzen dira, IIGren arloko jaulkitzaileen barneko ebaluazio-ereduari lotutako prozesuen etengabeko inplementazioan eta horri dagozkion jarraipen-kontrolatan.

Datuen tratamenduari dagokionez, datuok aipatutako iturrietatik eskuratzen dira, eta sozietateak jaulkitzaileei IGG ratinga esleitzeko garatu duen barne-eredu batean sartzen dira, baita erabakiak hartzeari eta kontrolak egiteari dagozkien prozesuetan ere.

Sozietateak ez du erabiltzen bere ereduaren zuzenean estimatutako datuak. Hala behar bada, erabiltzen diren datu estimatuak aipatutako datu-iturrietatik eskuratzen dira (Sustainalytics, MorningStar, Bloomberg).

9. METODOEN ETA DATUEN MUGAK

Aipatutako metodoen eta datu-iturrien muga nagusia datuen jatorrian datza (konpainiek eurek argitaratutako datu nahikorik ez dago). Konpainiek jasagarritasun-arloan argitaratu beharreko informazioa areagotuko duten araudiak indarrean sartu ahala (Jasagarritasunaren arloko informazio korporatiboari buruzko zuzentaraua (CSRD), batez ere), inbertitzaileek eta, oro har, herritarrek datu fidagarriak eta alderagarriak eskuratu ahal izango dituzte.

Era berean, egokia da adieraztea, muga gisa, jasagarritasunari buruzko datuak historikoak direla eta urtero eguneratu daitezkeela; beraz, finantza-izaerako beste datu batzuek baino zurruntasun handiagoa dute.

Bestalde, Kutxabank Gestioneak, zorro delegatuak osatzen dituzten fondoen kudeatzaileak, askotariko iturriak konbinatzen, eta adierazle baten inpaktua txikia ez izateko ahalik eta adierazle gehien erabiltzen ditu (oreka bilatu behar da efikazia/sendotasunaren eta efizientziaren artean), muga horiek finantza-produktuaren ingurumen- edo gizarte-ezaugarrien betetze-mailan eragin ez dezaten. Izan ere, sozietatearen barne-ereduan Sustainability-en ratinga sartu zen, besteak beste, aipatutako muga horiek arintzeko.

10. BEHARREZKO EGINBIDEAK

Jasangarritasunaren arloan, beharrezko eginbideen helburua da enpresa-portaera jasangarri eta arduratsu bat sustatzea, eta horrela, behar izanez gero, jardueraren ondorio kaltegarriak prebenitzea, bideratzea edo arintzea.

Zorro delegatuek inbertitzen duten fondoetan dauden aktiboei dagokienez egindako beharrezko eginbideen arlo zehatzean, Kutxabank Gestioneak, zorro horiek osatzen dituzten fondoek kudeatzaileak, kontuan hartzen ditu jasangarritasunaren arriskuak eta aukerak, aktiboen gainerako finantza-arriskuen eta -aldagaiekin batera, eta IIG politiken eta prozeduren zerrenda batean jasotzen ditu (baztertzeak, integrazioa, eztabaiden kudeaketa, inplikazioa, etab.).

1. **GIA politika orokorra** → Entitatearen inbertsio arduratsuko prozesuaren definizio orokorra egiten du.
2. **Jasangarritasun Arriskuak Integratzeko Politika** → Jasangarritasun-arriskuak integratzeko prozesura zehatzen du inbertsio-erabakiak hartzeko prozesuan.
3. **Inplikazio-politika** → Propietate aktiboa nola egiten den deskribatzen du; hau da, nola gauzatzen den boto-eskubidea, nola ezartzen den elkarrizketa aktibo bat inbertsio-xede diren enpresekin, eta nola kooperatzen den akziodunekin jasangarritasuna sustatzeari begira.
4. **KGn politika (deklarazioa)** → Kudeatzaileak kontrako gorabehera nagusiak arriskuen analisisan eta inbertsio-erabakietan sartzeko prozesua jasotzen du.

Era berean, beharrezko eginbideak sozietatearen funtzionamendu osoaren parte direla bermatzeko, sozietatearen estamentu guztiak daude inplikaturik eta, beraz, maila goreneko erabakitze-organismoak; horrela, beharrezko eginbideak ezarri eta gainbegiratzen, eta enpresa-estrategiaren barruan sartzen dira.

Administrazio Kontseilua	Sozietatearen jasangarritasun-politikak onartzea
GIA batzordea	Politika horien inguruan egin beharreko ekimen guztien koordinazioa (egitea, inplementatzea, jarraipena, etab.)
Sailetan inplementatzea:	
<ul style="list-style-type: none"> • Inbertsioak 	Aipaturiko politikak zuzenean inplementatzea erabakiak hartzeko prozesuan. IGG alderdi guztiak betetzearen ondorioz sortutako gai espezifiko guztiak inbertsio-prozesuan

	sartzen dira, Inbertsioen Batzordearen bidez.
<ul style="list-style-type: none"> • Arriskuen Batzordea 	IGG politikak inplementatzeko barne-eredua garatzea. Lotutako arriskuen mugak betetzen direla kontrolatzea.
<ul style="list-style-type: none"> • Araudia betetzea 	gidalerroak eta arau aplikagarriak eta gidalerroak betetzen direla koordinatzea eta egiaztatzea, sozietatean garatutako IGG politiken praktika onenekin.
<ul style="list-style-type: none"> • Barne Auditoria 	Barneko prozedurak eta politikak betetzen direla aztertzea.
<ul style="list-style-type: none"> • Administrazioa 	Laguntza ematea, betetze horretarako beharrezkoa den informazioari dagokionez.

11. INPLIKAZIO-POLITIKAK

Zorro delegatuen parte diren fondoak Kutxabank Gestionen fondoak direla kontuan hartuta, jarraian sozietate kudeatzaile horren inplikazio-politikak zehazten dira:

11.1. AKZIODUNEN BATZAR NAGUSIETAN (ABN) BOTO-ESKUBIDEA ERABILTZEA:

Kutxabank Gestión SGICen inplikazio-politikaren helburu nagusia, eskubide politikoen erabilerari dagokionez (boto-politika), ordezkatzeko duen partaidearen interesa defendatzea da, kudeatzailearen jarduerak barne biltzen dituen betebeharrak fiduziarioaren esparruan; hala ere, Kutxabank Gestionen uste osoa da eskubide politikoen erabilera arduratsua kudeatzen dituen zorrotako inbertitzaileen errentagarritasun-arrisku profila maximizatzen harago doala; izan ere, zorroen balio globala maximizatzen duten akzioak lehenesteko aukera ematen du, baita inbertsioen azken onuradunentzako balio globala ere.

Horregatik, Kutxabank Gestioneak, eskubide politikak gauzatzean, alderdi ekonomikoak eta GIA irizpideak hartuko ditu kontuan, entitatearen GIA Politikan adierazitako ezaugarriak sustatzeko. Kutxabank Gestionen boto-politika, beraz, eskubide politiko horiek erabiltzeko boto-gidalerro batzuen arabera arautzen da, besteak beste:

- **Kontra bozkatea hainbat gaitan, hala nola** paradisu fiskaletara aldatzea, genero-diskriminazioa, kapitala handitzea lehenesteko harpidetzea-erabilerak alde batera utzita (kapital sozialaren % 10 baino gehiago), akziodunekiko opakutasuna...
- **Alde bozkatea hainbat gaitan, hala nola** ustelkeriaren aurka borrokatzeko politikak, klima-trantsizioa eta ingurumenaren zaintza, kontseilari independenteen gehiengoa, ekintza bat = boto bat...

Boto-politika hori honela gauzatuko da:

- **Kanpoan:** Boto-eskubideak, oro har, akzioen erakunde gordailuzainak horretarako prestatutako bitartekoen bidez gauzatuko dira. Bertaratutako Akziodunen Batzar Nagusiaren eguneko gai-zerrendako gai baten kontrako botoa egonez gero, alde aurretik jakinaraziko zaio eraginpeko konpainiari posta elektronikoa bat igorrita, botoaren zentzua justifikatuz.
- **Barnean:** Boto-eskubideak betetzea inbertsio-taldeari dagokio. Administrazio-taldeak laguntza emango du, hori betetzeko beharrezkoa den informazioa eskuratzeari dagokionez.

11.2. “ELKARRIZKETA” KONPAINIETAN:

11.2.1. HELBURUAK

Helburu hauek ditu: informazioa lortzea epe luzera balio jasagarria sortzeko xedearen barruan, eta Kutxabank Gestioen “GIA Politika Orokorrean” zehaztutako irizpideak beren jardueran sartzearen garrantziaz konpainiak sentsibilizatzea.

11.2.2. ELKARRIZKETA-MOTAK

Elkarrizketa-estrategia hainbat alderditan ezartzen da, ebaluatutako jaulkitzaileen eskuragarritasun- eta hurbiltasun-mailaren arabera nagusiki:¹

- a) IGG gai **zehatzen gaineko** engagement “**gidatua**”.
 - Eskubide politikoen erabilerari lotuta dago nagusiki Akziodunen Batzarrean.
 - Martxo-maiatz hilabeteetan bilduta.
 - Europako konpainietara mugatua (zailtasunak beste geografia-eremu batzuetara hedatzeko).
 - Bilerak konpainiekin (batez ere estatukoak)
- b) IGG gai **orokorren gaineko** engagement “**orokorra**”: AEBko konpainietara bideratuta nagusiki.
- c) Engagement “**kolaboratiboa**” beste inbertitzaile batzuekin indarrak batzeko.

11.2.3. METODOLOGIA:

Konpainia partaidetu guztiei (Japoniakoak izan ezik) ingurumen, gizarte eta gobernantzaren arloan betetzen duten zeregina ebaluatzen zaie (adibidez, karbono-aztarna, ur-kontsumoa, plantillaren behin-behinekotasuna, genero-arrakala, genero-berdintasuna kontseiluetan eta zuzendaritza-postuetan, kontseiluko kide independenteak, nazioarteko estandarrei atxikitzea, eta abar). Ebaluazio horren emaitzak konpainia horretan egin beharreko elkarrizketaren tipologia zehaztuko du, prozesuari hasiera emanez.

¹ Engagement: Inbertitzen den konpainien inplikazio- eta konpromiso-maila neurtzeko erabiltzen den kontzeptua.

11.2.3.1. Enpresaren partaidetza zuzena

IGG gai zehatzen gaineko engagement “bideratuari” edo IGG gai orokorren gaineko engagement “orokorrari” dagokienez, enpresa partaidetuekin elkarrizketa zuzen bat abiaraztean, epe luzerako balioa areagotu nahi da bezeroen izenean.

Horretarako, Kutxabank Gestioen Inbertsio Taldeak enpresa bakoitzaren gai espezifikoari buruzko irizpideak eztabaidatzen ditu, horren barruan sartuta estrategia, kapital-egitura, arrisku finantzarioa eta ez-finantzarioa, eta IGG kontsiderazio estrategikoak. Horrela, inbertsioa erabakitzeko prozesuak indartzen hasten dira. Enpresaren partaidetza zuzenak bost urrats ditu:

Analisia eta aukeraketa	Inbertsio-unibertsoa eta inbertsioak monitorizatu egiten dira, konpainia batean engagementa egiteko arloak hautatzeko. Prozesua eztabaida ezagunetan eta aztertutako sektorearen IGG balorazioaren batez bestekoari buruzko desadostasun handia dagoen kasuetan oinarritzen da.
Elkarrizketa	Konpainia batekiko engagement-a lortu beharreko helburu espezifikoaren arabera hasten eta gidatzen da, eta hainbat komunikazio-modu erabiltzen dira (adibidez, telefono-deiak, emailak, gutunak, aurrez aurreko bilerak...).
Ebaluazioa	Engagement-aren jarraipena egiten da, eta emaitzak ebaluatzen eta sailkatzen dira, horren arrakasta zehazteko.
Ondorioa	Ebaluazio-prozesua amaitzeko, elkarrizketa-prozesuaren kategorizazioa egiten da, modu hauetakoren batean: <ul style="list-style-type: none"> • Egokia: behin helburuak beteta, elkarrizketa-prozesua amaitutzat ematen da. • Osatugabea: urrats berriak egitea erabakitzen da, behar bezala argitu gabeko alderdietan sakontzeko. • Desegokia: ez dira lortu planteatutako helburuak; beraz, prozesuaren “eskalatze” bat planteatuko da, helburuen ez-betetze mailaren arabera. “Eskalatze” hori modu hauetakoren batean adieraz daiteke: kontrako botoa ABN, barneko IGG ratinga aldatzea, komunikazio publikoa, partaidetza murriztea edo osorik saltzea.

Komunikazioa

Ondorioak komunikatu egingo dira, bai barruan (bereziki inbertsioen eta arriskuen sailetan, barneko IGG ratingaren esleipen / inbertsioen prozesua atzeraelikatzeke), bai, hala badagokio, kanpoan (eraginpeko konpainiari)

11.2.3.2. Elkarrizketa edo engagement kolaboratiboa

Engagement “kolaboratiboari” dagokionez, Kutxabank Gestioneak beste inbertitzaile (instituzionalak) batzuekin batera egiten du lan, IGG praktikei buruz enpresekin elkarreraginean aritzeko. Ikuspegi hori bereziki eraginkorra da industriari, oro har, eragiten dioten IGG arazoengatik inguruan, non enpresengana ahots bateratu batez joateak areagotu egin baitezake engagement jardueraren inpaktua.

Kutxabank Gestioneak, PRIren bidez, zeina inbertitzaileekin engagement jarduerak egiteko plataforma global handiena baita, ezagutzak eta gaitasunak eskuratzeko ditu, informaziorako sarbidea zabalduz, enpresa partaidetuetako beste alderdi interesdun batzuekin.

Engagement kolaboratiboko jardueretarako, esanguratsutzat hartzen dira parte hartu beharreko ekimenak hautatzeko irizpide hauek:

- Sozietateak inbertsio jasagarrien ikuspegira egokitzea (“materialtasuna”) eta inbertsio espezifiko eta jasagarrietara.
- Inpaktua sortzeko gaitasuna.
- Garapen jasagarriko egokitasuna, oro har.
- Sozietatearen esperientzia garatzeko garrantzia.

11.3. “ELKARRIZKETA” ORGANISMO PUBLIKOekin:

Kutxabank Gestioneak politika publikoaren konpromiso bat du ere industria-mailan. Hala, “erakunde” mailan kolaboratzaile aktiboa da erakunde publikoekiko elkarrizketan / erregulatzailea enpresa-elkarteetara eta partaidetza-foroetara atxikita (INVERCO, CFA...), bestelako alderdi interesdunekiko kontaktuak sustatuz araudi-mailan IGG gai esanguratsuen inguruko kontsiderazioa eta integrazioa bultzatzeko.

Kutxabank Gestioneak uste du politika publikoak eragin handia duela finantza-merkatuen jasagarritasunean eta egonkortasunean, eta zeregin garrantzitsu bat betetzen du erregulazioan, bai eta enpresen, inbertitzaileen eta, oro har, gizartearen arteko harremanean ere.